

## **Pentsioen osasuna berreskuratu**

Pentsio Sistema Publikoaren egoera larriaren ardura Espainiako gobernuek dute, ez baitituzte Toledoko Hitzarmenaren irizpideak bete (1996). Hitzarmen horrek zehaztu ditu, hain zuzen, bai pentsioen jasagarritasuna, bai etorkizuneko erronkei aurre egiteko bidea ere.

Toledoko hitzarmenak Kongresuko alderdi politiko guztien babesa jaso zuen, baina, tamalez, interes politikoez adostasun berriak lortu ahal izatea galarazi dute. Horregatik, ezinbestekoa da pentsioen gaia "gatazka" politikotik at uztea, adierazpen eta pankarta oportunistak alde batera uztea eta proposamen zehatzak egitea. Izan ere, aukera dago, borondatea izanez gero, oinarrizko pentsioen finantziazioa, balio handitzea (rebalorizazioa) eta berme- arazoak eteteko.

Finantziazio-defizitari aurre egiteko, beharrezkoa da, bai gizarte-kotizazioen kutxaren eta Erreserba Funtzaren erabilera legalki babestea eta kotizazio-hobariak beste baliabide batzuekin finantzatzea. Horrez gain, ezinbestekoa da langabezia-tasa jaitea kalitatezko lanpostu egonkorak sortuta; zerga bidezko finantziario-eredu berriak bilatzea (alkohola, erregaiak, BEZ-a..., Europako erreferentziak) eta hain beharrezkoak ez diren ataletan gastu publikoan aurrezkoa lehenestea ere bai: aireportuetan, defentsa-gastuetan, defizit publikoa hobetuta...

Bestalde, ezin da askoz gehiago itxaron pentsio baxuenei irtenbideak bilatzeko. Ildo horretan, premiazkoa da galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea eta galdutako ahalmen hori bermatuko duen balio-handitzedun sistema berrezartzea. Baita, gaur egungo etena gainditzeko, pentsio baxuenen balioa handitzea eta beharrezkoak diren oinarrizko pentsioen bermea ezartzea ere.

Horrez gain, bereziki garrantzitsua da alargun-pentsioen kalkulua berrikustea. EAJ-PNVtik pentsio horren zenbatekoa hobetzea aldarrikatzen dugu, justizia sozialaren alde; bestelako errekurtsorik gabe dauden milioika pentsiodun (emakume alargunak, batez ere) ezin dira benefizentziaren menpe bizi.

Halaber, haratago joanda, nahitaezkoa da pentsioen transferentzia lortzea Euskadin etorkizuneko marko propioa eraiki ahal izateko. Horrela, hausturarik gabeko adostasun politikotik abiatuta, egungo eta etorkizuneko pentsioei irtenbide egonkorra emateko bidea jorratzen hasiko gara. Gure proposamena da pentsioen osasuna berreskuratzea.

Lourdes Idoiaga Urkia

Oñatiko EAJ-PNVko zinegotzia

---